# Xedapen Orokorrak

**HERRIZAINGO SAILA**

**2788**

94/2011 DEKRETUA, maiatzaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudia laugarren aldiz aldatzen duena.

Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 65.2 artikuluak xedatzen du merezimendu-lehiaketa bidez lanpostuak betetzeko prozeduretan deialdiek zehaztuko dituztela ebaluatzekoak diren merezimenduak, lege horretan bertan aipatutakoak eta lanpostuaren ezaugarrien arabera egokitutako beste batzuk aintzat hartuz; eta, bestetik, berorien balorazioa ezarriko dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko indarrean dagoen araudiak, zeina abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren bidez onartu baitzen, eta martxoaren 6ko 42/2001, otsailaren 3ko 20/2004 eta abenduaren 30eko 231/2009 Dekretuen bidez aldatu baitzen, bere bederatzigarren artikuluko bigarren atalean gutxieneko eta gehienezko balorazio-ehunekoak ezartzen ditu merezimendu-kontzeptu edo -talde bakoitzean lor daitekeen puntuazio osoaren arabera.

Ehuneko horiek kontuan izanda, merezimendu-lehiaketak izan dira alega daitekeen merezimendu bakoitzari dagokion balorazioa zehaztu dutenak. Hala eta guztiz ere, Ertzaintzaren eremuan Herrizaingoko sailburuaren 2008ko urtarrilaren 7ko Aginduak merezimendu-lehiaketa guztietan, izaera orokorrez aurreikusia, aplikagarria den merezimendu orokorren baremoa onartu zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiaren bederatzigarren artikuluko bigarren ataleko araua, Ertzaintzako zein Udaltzaingoetako merezimendu-lehiaketetan aplikatzekoa baitzen -gainera, lehiaketa orokorretan zein espezifikoetan- onartu zenetik egiaztatu zen nahikoa ez zela polizia-kidegoen errealitate zehatzean sortzen diren behar eta eskakizunetara egokitzeko. Hori horrela, araudiak berak aurreikusten zuen Ertzaintzan antzinatasunagatiko gehienezko ehuneko aplikagarria salbuesten zuen xedapen iragankorra eta, hain zuzen, salbuespen hori erregelamenduaren aldaketaz, martxoaren 6ko 42/2001 Dekretuaren bidez, luzatu zen.

Zentzu zabalean lanpostuen hornidura lanbide-sustapen motatzat har daitekeen arren; egia esateko, batik bat Ertzaintzaren kasuan, eta bereziki haren behe-mailako eskala eta kategorietan, oinarrizko lanpostuen konfigurazio desberdina dela-eta, mugigarri-

# Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

**2788**

DECRETO 94/2011, de 17 de mayo, de cuarta modificación del Reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco.

El artículo 65.2 de la Ley de Policía del País Vasco dispone que en los procedimientos de provisión de puestos vía concurso de méritos las correspondientes convocatorias determinarán los méritos evaluables, atendiendo a los mencionados en la propia ley y aquellos otros adecuados en función de las características del puesto, y establecerán su valoración.

El vigente reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, aprobado por Decreto 388/1998, de 22 de diciembre y modificado por los Decretos 42/2001, de 6 de marzo; Decreto 20/2004, de 3 de febrero, y Decreto 231/2009, de 30 de diciembre, establece en el apartado segundo de su artículo noveno unos porcentajes mínimos y máximos de valoración sobre el total de la puntuación obtenible para cada concepto de mérito o grupo de ellos.

Atendiendo a dichos porcentajes han sido las convocatorias de los concursos de méritos las que determinan la valoración correspondiente a cada uno de los méritos alegables. Ello no obstante, en el ámbito de la Ertzaintza la Orden del Consejero de Interior de 7 de enero de 2008 aprobó un baremo de méritos generales aplicable previsto con carácter general para todos los concursos de méritos.

La regla del apartado segundo del artículo noveno del reglamento de provisión de puestos de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, que resultaba aplicable tanto a los concursos de méritos de la Ertzaintza como de las Policías Locales, y tanto a los concursos generales como a los específicos, se mostró desde su aprobación, insuficiente para adaptarse a las necesidades y exigencias que se plantean en la concreta realidad de los cuerpos policiales. Así el propio reglamento preveía una disposición transitoria que excepcionaba el porcentaje máximo aplicable por razón de antigüedad para la Ertzaintza, y dicha excepción fue prorrogada por la reforma del reglamento mediante Decreto 42/2001, de 6 de marzo.

Si bien la provisión de puestos de trabajo puede, en sentido lato, considerarse una suerte de promoción profesional, lo cierto es que, singularmente en el caso de la Ertzaintza, y especialmente en sus escalas y categorías inferiores, dada la configuración indistinta

tasun horizontala edo geografikoa nagusitzen da kidegoko lanpostuen eskalako sustapenaren aurretik.

Hori dugu merezimendu-baremoek lehiaketetan gehienezko eta gutxieneko ehunekoen banaketa egokitu ahal izatea justifikatzen duen arrazoia; hain zuzen ere, polizia-kidegoen berezitasunak, lehiaketa orokorrak edo espezifikoak diren ala ez edo bete nahi diren lanpostuen eskalak eta kategoriak aintzat hartuta.

Hori dela eta, aldaketa honek izaera orokorrez edo deialdietan ezarriko diren baremoen aginduak moldatu nahi ditu; hain zuzen, merezimenduen banaketa eta ebaluazioa legezko arauan xedatutakoaren arabera egoki ditzaten, Euskal Administrazio Publikoen zerbitzura dauden gainerako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudian agertzen den bezala, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuaren bidez onartu baitzen.

Arau mailako irtenbide hori, gainera, onuragarriagoa da tokiko autonomiarentzat.

Berdinketa hausteko ezarritako arauak gordetzen dira merezimendu-lehiaketa bidez lanpostua betetzeko gaitasun bera dagoen kasuetarako. Hori hala izanik, emakumeari lehentasuna ematen zaio Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen bidez Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean egindako aldaketan ezarrita dauden baldintzetan.

Horren ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeak eta Ertzaintzaren Kontseiluak txostena egin eta gero, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari jarraiki, Herrizaingoko sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko maiatzaren 17ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko Araudiaren 9. artikuluko 2. atala aldatzen da, araudia abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren bidez onartu baitzen; atal horrek hurrengo idazkera izango du:

«2.– Puntuazioan berdinketa gertatzen bada, emakumeari lehentasuna emango zaio baldin eta kasuan kasuko lanpostuaren kodean emakumeek duten presentzia % 40tik beherakoa bada. Berdinketak irauten badu, 1. atalean adierazitako merezimenduei eman zaien puntuazioaren arabera ebatziko da, zehaztutako hurrenkeran. Halakorik ezean, karrerako funtzionario gisa sartu zen data hartuko da kontuan eta, bestela, kategoria hori eskuratzeko hautaketa-prozesuan lortutako lehentasun-ordena».

de los puestos básicos, prevalece la idea de la movilidad horizontal o geográfica sobre la de la promoción en la escala de puestos del cuerpo.

Razón que justifica que los baremos de méritos puedan acomodar la distribución de los porcentajes máximos y mínimos de la valoración de méritos en los concursos atendiendo a las singularidades de los cuerpos policiales, a la consideración de si se trata de concursos generales o específicos o a las escalas y categorías cuyos puestos se vayan a proveer.

Por ello la presente modificación pretende habilitar a las órdenes de baremos que se establezcan con carácter general o en las correspondientes convocatorias, para que adecuen la distribución y evaluación de los méritos conforme a lo dispuesto en la norma legal, tal y como acontece en el reglamento de provisión de puestos del resto de los funcionarios al servicio de las Administraciones Públicas Vascas, aprobado por el Decreto 190/2004, de 13 de octubre.

Solución normativa, que, además, es más favorable a la autonomía local.

Se mantienen las reglas de desempate establecidas para los supuestos de igualdad de capacitación en la provisión de un puesto de trabajo mediante concurso de méritos, otorgando prioridad a la mujer en los términos establecidos en la modificación de la Ley de la Función Pública Vasca efectuada mediante Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En su virtud, previo informe de la Comisión de Coordinación de Policías Locales del País Vasco y del Consejo de la Ertzaintza, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Interior y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 17 de mayo de 2011.

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el apartado 2 del artículo 9 del Reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, aprobado mediante Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, que queda redactado en los siguientes términos:

«2.– En caso de empate en la puntuación, se dará prioridad a la mujer cuando la representación de las mujeres en el código de puesto de que se trate sea inferior al 40%. De persistir el empate, se acudirá para dirimirlo a la puntuación otorgada a los méritos enunciados en el apartado 1, por el orden expresado. En su defecto, se acudirá a la fecha de ingreso como funcionario de carrera en la categoría desde la que se concursa y, en su defecto, al orden de prelación obtenido en el proceso selectivo de acceso a la citada categoría».

***Bigarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia-kidegoen funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudiaren lehen xedapen gehigarria aldatzen da, abenduaren 22ko 388/1998 Dekretuaren bidez onartu baitzen; atal horrek hurrengo idazkera izango du:

«Lehenengoa.– Herrizaingoko sailburuak Ertzaintzaren eskala edo kategoria jakin baten lanpostu hutsak lehiaketa bidez betetzeko merezimendu-baremo erkide eta bateratu bat onar dezake».

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratu da Herrizaingoko sailburuaren 2008ko urtarrilaren 7ko Agindua. Agindu horrek merezimendu-lehiaketaren bidez Ertzaintzako lanpostuen horniduran aplikagarria den merezimendu orokorren baremoa (2008ko urtarrilaren 28ko EHAA, 19. zk.) onartu zuen, baita 2009ko martxoaren 4ko Aginduaren bidezko haren aldaketa ere (2009ko apirilaren 16ko EHAA, 71. zk.).

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko maiatzaren 17an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

***Artículo segundo.***– Se modifica la disposición adicional primera del Reglamento de provisión de puestos de trabajo de los funcionarios de los Cuerpos de Policía del País Vasco, aprobado mediante Decreto 388/1998, de 22 de diciembre, que queda redactada en los siguientes términos:

«Primera.– El Consejero de Interior podrá aprobar un baremo de méritos común y unitario para la provisión mediante concurso de las vacantes propias de una determinada escala o categoría del Cuerpo de la Ertzaintza».

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogada la Orden de 7 de enero de 2008, del Consejero de Interior, por la que se aprueba el baremo de méritos generales aplicable en la provisión de puestos de trabajo de la Ertzaintza mediante concurso de méritos (BOPV n.º 19, de 28 de enero de 2008), y su modificación por Orden de 4 de marzo de 2009 (BOPV n.º 71, de 16 de abril de 2009).

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de mayo de 2011.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.